

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 19,5 egin zuten gora 2021eko irailean

2021eko lehen bederatzi hiletan, esportazioen metatua 18.691 milioi eurokoa izan da; urte arteko % 23,3ko igoera izan du

Euskal AEn ondasunen **esportazioek** % 19,5eko igoera izan zuten **2021eko irailean**, Eustaten datuen arabera. Produktu energetikoen esportazioek % 109,4 egin zuten gora, eta produktu ez-energetikoenek (balio osoaren % 93), % 15,9.

Nabarmentzekoa da, hil honetan, “*Metal eta haien manufakturen*” igoera (% 62,4), “*Produktu mineral eta energetikoena*” (% 103,8) eta “*Produktu plastiko eta kautxuena*” (% 29,0). Nabarmentzekoa da, halaber, “*Garraio-materiala*”ren beherakada (–% 15,8). Oro har, esportazioek 2.341 milioi euroko balioa gainditu zuten; aurreko urteko hil berean, 1.959 milioi eurokoa izan zuten.

Inportazioek % 51,3ko hazkuntza izan zuten 2021eko irailean, eta 1.884 milioi eurora iritsi ziren. *Inportazio energetikoek* % 110,3 egin zuten gora eta *ez-energetikoek*, % 39,7.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 Iraila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.958.831	2.341.029	19,5	1.245.423	1.883.994	51,3
PRODUKTU ENERGETIKOAK	75.165	157.398	109,4	204.664	430.394	110,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.883.666	2.183.631	15,9	1.040.760	1.453.600	39,7
URTEKO METATUA	15.156.525	18.691.352	23,3	11.514.738	14.905.721	29,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	758.556	982.053	29,5	2.249.493	3.049.103	35,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	14.397.968	17.709.299	23,0	9.265.245	11.856.618	28,0
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	642.508	637.458	-0,8	276.629	342.312	23,7
URTEKO METATUA	4.455.322	5.307.284	19,1	2.554.063	3.228.719	26,4
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	658.729	975.258	48,1	640.997	1.095.764	70,9
URTEKO METATUA	5.689.876	7.550.416	32,7	6.346.301	8.330.450	31,3
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	657.594	728.314	10,8	327.797	445.918	36,0
URTEKO METATUA	5.011.327	5.833.652	16,4	2.614.374	3.346.552	28,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Hazkuntza esportatzailearik handiena **Bizkaian** izan zen, % 48,1ekoa, “*Metalen eta haien manufakturen*” igoeraren (% 63,5) eta “*Produktu mineral eta energetiko*”en igoeraren (% 109,7) ondorioz; 84 milioi egin zuten gora, eta, hil horretan, lurralde horrek esportatutako guztiaren % 16,5 izan ziren. **Gipuzkoan** hazkuntza % 10,8koa izan zen, “*Metalen eta haien manufakturen*” igoeraren (% 63,8) eta “*Produktu plastiko eta kautxuen*” igoeraren (% 162,5) ondorioz, eta nahiz eta “*Garraio-materiala*”ak behera egin zuen (–% 34,2) –64,2 milioi gutxiago esportatu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean–. **Arabaren** balantzea nahiko negatiboa izan zen; izan ere, esportazioek % 0,8 egin

zuten behera, “*Garraio-material*”aren beherakadaren (% 13,6) ondorioz, zeina “*Metalen eta haien manufakturen*” igoerarekin (% 57,3) konpentsatu baita.

Inportazioak direla eta, **Bizkaian** izan zen igoerarik handiena (% 70,9), “*Produktu mineral eta energetiko*”en erosketen igoeraren (% 107,8) eta “*Metalen eta haien manufakturen*” igoeraren ondorioz (% 98,0). Bilakaera, **Gipuzkoan**, % 36,0koa izan zen, funtsean “*Metalen eta haien manufakturen*” (% 78,6) ondorioz. **Arabian** ere, balantzea positiboa izan zen; izan ere, ondasunen erosketek % 23,7 egin zuten gora, “*Metalen eta haien manufakturen*” igoerari (% 39,2) esker, gainerako lurraldeetan bezala.

Jarduera-adarrak (A 86)

Jarduera-adar garrantzitsuenak aztertzean, esportazioei dagokienez, nabarmentzekoak dira, irailean, “*Produktu siderurgiko*”en igoera (% 93,1), batez ere Bizkaian, “*Kokeria eta petrolio-fintze*”arena (% 109,5), Bizkaian, eta “*Material eta ekipo elektriko*”aren esportazioak (% 89,5), bai Bizkaian bai Gipuzkoan. “*Motordun ibilgailuen fabrikazioa*”rekin lotutako produktuek atzera egin dute % 14,0 (2020ko irailean baino 76 milioi gutxiago). Azken jarduera-adar horrek –lehen esportazioen rankingean– behera egin du hiru lurraldeetan, baina, batik bat, Araban (–% 14,1); bertan, 2020ko irailean 396,8 milioi esportatu ziren eta, 2021ean, 340,8 milioi.

Inportazioak direla eta, jarduera-adarrak garrantzitsuenak, “*Erauzketa- eta petrolio-industriak*” (guztizkoaren % 16,6), % 86,5eko hazkuntza izan duela ikusten da, eta “*Kokeriak eta petrolio-fintzeak*”, % 201,8koa; lehenak 2020an 145 milioi gehiago izan ditu, eta bigarrenak, 82 milioi gehiago. Halaber, nabarmen hazi dira “*Produktu siderurgiko*”en inportazioak (% 102,7 eta 99 milioi gehiago) eta “*Saneamendu eta hondakinen kudeaketa*”renak (% 120,4); azken hori Gipuzkoan, batez ere.

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunak ematean ikusten da esportazioek urte artean gora egin dutela “*Petrolio-olio findu*”en kasuan (% 120,9), 74 milioi gehiagorekin, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, eta “*Trenbideak edo antzekoak mantentzeko edo zerbitzatzeko ibilgailu*”en kasuan (% 5.464,3). Gora egin dute, halaber, honako hauek: “*Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profila*” (% 80,4), “*Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak*” (% 586,3), “*Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina*” (% 209,8), “*Produktu lau laminatuak, burdinazkoak edo altzairuzkoak aleatu, xaflatu eta estali gabe, 600 mm-tik beherakoak*” (% 927,9) eta “*Plastikoa garraiatzeko, ontziratze edo ixteko gaiak (bonbonak, karreteak, botilak, poltsak, tapoiak, tapak eta ixteko kapsulak...)*” (% 666,8).

Tradizioan arantzel-partida garrantzitsuenetako batek, “*Salgaiak garraiatzeko automobilak*” partidak, beherakada izan du, % 54,1ekoa, eta esportazioak 93,3 milioi euroan murriztu ditu, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak (milaka euro) (p). 2021eko iraila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.958.831	2.341.029	100	19,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	207.658	217.669	9,3	4,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	149.805	160.884	6,9	7,4
Petrolioaren olio finduak	61.111	135.002	5,8	120,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	87.748	94.986	4,1	8,2
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	172.354	79.060	3,4	-54,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	32.841	59.257	2,5	80,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	51.319	50.891	2,2	-0,8
Trenbideak edo antzekoak mantentzeko edo zerbitzatzeko ibilgailuak	865	48.150	2,1	5.464,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	22.580	38.736	1,7	71,6
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	11.434	35.416	1,5	209,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbusturak	20.905	33.511	1,4	60,3
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak	4.333	29.738	1,3	586,3
Landu gabeko aluminioa	11.204	27.458	1,2	145,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	14.346	27.288	1,2	90,2
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu plano ijeztuak, txapatuak edo estaliak, 600 mm-tik gorako zabalerakoak	2.389	24.535	1,0	927,2
Plastikoa garraiatzeko, ontziratze edo iteko gaiak (poltsak, tapoiak, tapak eta iteko kapsulak)	3.123	23.950	1,0	666,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	14.697	23.873	1,0	62,4
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	15.650	22.821	1,0	45,8
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	20.023	21.990	0,9	9,8
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	10.863	21.533	0,9	98,2
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	17.147	20.248	0,9	18,1
Ardoa, mahats freskoarena	18.024	20.090	0,9	11,5
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	0	18.715	0,8	-
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	16.407	18.490	0,8	12,7
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	7.222	17.818	0,8	146,7

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, nabarmentzekoa da “*Petrolio olio findu*”etan izan den inportazioen igoera handia, diru-mailan, eta “*Petrolio edo mineral bituminosozko olio gordin*”etan izan den igoera nabarmena (% 46,4). Lehenengoen kasuan, 2020ko irailean 103.074 tona inportatu ziren, 37,5 milioi euroan, eta aurtengo hil berean, 193.091 tona, 116,8 milioi euroan, funtsean “*Gasolio*”aren kasuan, zeinak, 25 mila tonako igoera izanik, gastua 43 milioi euro igotzea ekarri baitu; pisuari dagokionez, % 26,9ko igoera izan du, baina, balioari dagokionez, % 147,1, aurreko urteko hil beraren aldean. Neurri txikiagoan, “*Fuelolioa*”k ere igoera nabarmena izan du; izan ere, 2020ko irailean ez zen ezer inportatu eta, aurtengo hil honetan, 57.252 tona inportatu dira, 22,7 milioi euroan.

Era berean, “*Petrolio-gasaren eta gasezko gainerako hidrokarburoen*” inportazioen hazkuntza paregabea aipatu behar da (% 768,1), urte artean 55.860 tonako igoera izan baitu eta 2020ko irailean baino 79 milioi euro gehiago (7,7 milioitik 76,8ra), kasu horretan “*Gas natural*”arenean baino ez.

Halaber, honako hauen inportazioetan ere indartze nabarmena erregistratu da: “*Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak*” (% 150,6), “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” (% 193,0) eta “*Soja-babak, baita hautsiak ere*” (% 99,8).

Xede diren bezeroak

Irailean, bost herrialde (Frantzia, Alemania, Herbehereak, Erresuma Batua eta Italia) izan ziren Euskal AEn bezero nagusiak, Euskal AEko esportazioen guztizkoaren % 51,4 berenganatu baitzuten. Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri Euskal AEko esportazioen % 66,4 dagokio.

Euskal AEko kanpo-merkataritza. Urteko metatua

2021eko lehen bederatzi hiletan, Euskal AEko ondasunen esportazioek % 23,3 egin zuten gora (3.535 milioi gehiago aurreko urtean baino), eta 18.691,4 milioi eurora iritsi ziren. Zifra hori 2019ko –

pandemiaren aurreko urtea– aldi bereko zifra baino pixka bat txikiagoa da, orduan 18.875,4 milioi eurokoa izan baitzen.

Inportazioen metatua 14.905,7 milioikoa izan zen, alegia, aurreko ekitaldiko aldi berean erregistratutakoa baino 3.391 milioi gehiagokoa (% 29,4ko igoera).

Euskal AEko kanpo-merkataritzak, 2021eko lehen bederatzi hiletan, 3.786 milioi euroko saldo positiboa izan du eta % 125,4ko estaldura-tasa.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila - Iraila 2021

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila - Iraila			Urtarrila - Iraila		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	15.156.525	18.691.352	23,3	11.514.738	14.905.721	29,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	758.556	982.053	29,5	2.249.493	3.049.103	35,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	14.397.968	17.709.299	23,0	9.265.245	11.856.618	28,0
ARABA/ÁLAVA	4.455.322	5.307.284	19,1	2.554.063	3.228.719	26,4
BIZKAIA	5.689.876	7.550.416	32,7	6.346.301	8.330.450	31,3
GIPUZKOA	5.011.327	5.833.652	16,4	2.614.374	3.346.552	28,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Bizkaia nabarmena izan zen aldi horretan, haren esportazio-jardueragatik; izan ere, urte arteko % 32,7ko hazkuntza izanik, ondasunen salmenten buru da (7.550 milioi euro). **Arabak** % 19,1eko hazkuntza izan zuen (5.307,3 milioi), eta **Gipuzkoak**, % 16,4koa (5.833,7 milioi).

Inportazioak direla eta, portaera berdintsuagoa izan zen hiru lurraldeetan: **Bizkaiak** % 31,3ko igoera izan zuen, eta 8.330,5 milioi euroan inportatu zituen ondasunak; ondoren, **Gipuzkoak**, 3.346, milioi euroan eta % 28,0ko igoera, eta **Arabak**, antzeko ehunekoarekin (% 26,4) eta 3.228,7 milioiko ekarpenarekin Euskal AEko zenbateko osoan.

Produktuak

Produktu mota kontuan hartuta, *Produktu ez-energetikoe*k (urte arteko 3.311 milioiko hazkuntza, % 23,0) lagundu zioten gehien esportazioen hazkuntzari; *Produktu energetikoe*k ere aurreko urtean baino 223,5 milioi gehiago izan zuten (% 29,5).

Bestalde, *Produktu energetikoen* inportazioek % 35,5 egin zuten gora, eta *Produktu ez-energetikoenek*, % 28,0.

Xede diren herrialdeak

Euskal AEko esportazioen xede diren herrialdeen rankingeko buru, aldi honetan, Alemania da (esportatutako guztiaren % 16,4), ondoren Frantzia (% 16,0), Erresuma Batua (% 6,8), Estatu Batuak (% 5,9) eta Belgika (% 5,3). Bost herrialde horiek Euskal AEko esportazioen erdia hartzen dute (9.428 milioi, % 50,4). Estatu horiei Italia (% 5,2), Herbehereak (% 5,0), Portugal (% 4,3), Txina (% 2,7) eta Polonia (% 2,4) gehitzen badizkiegu, 2021eko lehen bederatzi hiletako metatua, guztira, 13.101 milioi eurokoa da, eta Euskal AEko esportazio guztien % 70,1.

Jarduera-adarrak (A 86)

Jarduera-adar garrantzitsuenen artean, esportazio-bolumena kontuan hartuta, “*Siderurgia*” da nabarmentzekoa (% 44,8), zeinak 628 milioi euroan gainditzen baitu aurreko urtean esportutakoa, eta 2.031 milioi eurora iritsi baita; jarduera-adar horren hazkuntza-ehunekoa ehuneko 5 puntutan hazi da, aurreko hilera arteko metatuarekin alderatuta, eta 134 milioiko igoera izan du, hil bakar batean.

Nabarmen hazi da, halaber, honako hauen esportazioa: “*Burdinazkoak ez diren metalak*” (% 61,8), “*Erabilera orokorreko makineria*” (% 9,2), “*Kautxuzko produktuak*” (% 20,9) eta, bereziki, “*Ontzigintza*” (% 1.138,8).

“*Motordun ibilgailuen fabrikazioarekin*” zerikusia duten produktuen adarrak (4.020,5 milioi eta guztizkoaren % 21,5), 2021. urteko bederatzigarren hila amaitzean, % 17,9ko hazkuntza metatua erregistratu du, aurreko urteko aldi berean baino 610,3 milioi gehiago.

Inportazioen kasuan, nabarmentzekoa da adarrik garrantzitsuenak, “*Erauzketa- eta petrolio-industriak*” –petrolio gordina–, % 14,0 egin duela gora, eta bolumen aldetik atzetik dituenek ere gora egin dutela, batik bat “*Siderurgia*”k (% 50,4), eta, nabarmen, “*Kokeriak eta petrolio-fintzea*” adarrak (% 170,8) –petrolio findua–.

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunak ematean ikusten da esportazioen barruan 25 arantzel-partida nagusien artean hirutan baino ez direla egon hazkuntza-tasa negatiboak: “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (–% 22,3), “*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak*” (–% 5,7) eta “*Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...*” (–% 2,8). Gainerako arantzel-partidetan, tasak positiboak izan dira, eta honako hauek nabarmentzen dira, daukaten garrantziagatik eta pisu bereziagatik: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 19,0), “*Salgaiak garraiatzeko automobilak*” (% 9,5), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 16,3), “*Petrolioaren olio finduak*” (% 26,0) eta, zehazki, “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (% 32,3), zeinek gure esportazioen buru den taldea eratzen baitute (5.537 milioiko esportazioa, esportatuen ia % 29,6).

Euskal AEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarrila - iraila 2021

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	15.156.525	18.691.352	100	23,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.324.497	1.576.800	8,4	19,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	990.979	1.311.506	7,0	32,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	936.343	1.025.293	5,5	9,5
Petrolioaren olio finduak	663.757	836.143	4,5	26,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	676.684	787.250	4,2	16,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	353.318	454.942	2,4	28,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	252.172	444.609	2,4	76,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	200.915	275.751	1,5	37,2
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	285.610	269.467	1,4	-5,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	189.627	251.603	1,3	32,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurak gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	281.968	219.076	1,2	-22,3
Landu gabeko aluminioa	71.135	198.876	1,1	179,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	120.469	196.350	1,1	63,0
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	123.500	186.668	1,0	51,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	139.971	176.438	0,9	26,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	110.536	174.033	0,9	57,4
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	126.219	172.841	0,9	36,9
Ardoa, mahats freskoarena	137.876	163.593	0,9	18,7
gorako zabalerakoak	47.413	163.294	0,9	244,4
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	90.520	162.613	0,9	79,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	158.419	153.929	0,8	-2,8
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	136.648	153.527	0,8	12,4
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	140.889	151.938	0,8	7,8
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroiloak eta giltzak	129.190	146.718	0,8	13,6
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	111.309	145.797	0,8	31,0


(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Inportazioen kasuan analisi bera egiten badugu, nabarmentzekoa da “*Petrolio-olio findu*”en erosketek izan duten gorakada handia (% 165,6); kontuan hartu den aldian, 760 milioi euro metatu dituzte, aurreko urteko aldi bereko 286 milioien aldean. Alegia, pisuari dagokionez, 911.538 tonatik 1.650.779 tonara igaro da. Inportazioen rankingeko 64. partidan aurkitzen dugu hazkuntza-tasa handiagoa; ordura arte, ez. 25 inportazio-partida nagusietako batek ere ez du hazkuntza-tasa negatiboa izan; tasa negatiboa izan duen lehen partida “*Telefono*”en taldea da (-% 32,3), 36. postukoa, eta, zehazki, “*Telefono mugikorrak*” dira beherakada horren erantzule nagusiak (% 46,5eko beherakada).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62